

BITORIANO GANDIAGA



FRANTZISKOTAR

ETA

EUSKAL POETA


Paulo Agirrebaltzategi

Idazlan hau Vidas memorables – Bizitza oroigarriak libururako idatzia nuen, obraren editore Joxe Anjel Egigurenen iradokizunari erantzunez; baina tartean Pello Zabalaren beste idazlan bat iritsi zitzaion Gandiagari buruzkoa; eta liburuan hura bakarrik sartzea erabaki genuen.

Aspalditxo idatzita baina oraindik argitaratzeko dagoen “Bitoriano Gandiagaren espiritualitate eta inspirazio frantziskotarra” beste idazlan luzearen berri zuelarik, Cantabria Franciscana-rako gai beretsuari buruzko lankidetza eskatu zidanean Joxe Mari Arregi zuzendariak, idazlantxo hauxe eskaintzea otu zitzaidan; ondo iruditu zitzaion.

Quod scripsi scripsi, bere horretan utzi dut idatzia, titulu eta eduki. Jatorriz norako idatzita dagoen ezagututa, hobeto ulertu ahal dira horren estiloa eta doinua; eta zenbait xehetasun eman izana. Ez daude, beraz, Cantabria Franciscana-ren irakurlearentzat zuzenean egokituta.

Egokitasunak gora behera, egokiera apartekoa ematen digu gure Bitorianoaren oroitzapena egiteko, laster haren heriotzako hamar urte beteko diren honetan.



Paulo Agirrebaltzategi

Dentro de poco se cumplirán los diez años del fallecimiento de Bitoriano Gandiaga –murió el 21 de enero del 2001–.

Este pequeña semblanza biográfica de nuestro poeta fué escrita directamente para la obra *Vidas memorables / Bizitza oroigarriak*, diseñada, dirigida y editada por Joxe Angel Egiguren, y publicada el año pasado (2009). Una especie de “vidas ejemplares” de franciscanos recientes, muy nuestros y cercanos en su mayoría, dirigidas en principio a jóvenes en búsqueda vocacional –sirva esta referencia como propaganda de la

obra!—. Allí no tuvo lugar este trabajo, porque se le adelantó otro, escrito por Pello Zabala. Editor y “biografo” se pusieron fácilmente de acuerdo en incluir en la obra la aportación de Pello, y dejar para mejor ocasión la de Paulo.

Y la ocasión ha venido por solicitud del director de *Cantabria Franciscana*, Joxe Mari Arregi, que hacía algún tiempo me estaba solicitando una colaboración sobre el tema para la revista, habiendo tenido él conocimiento de un escrito mío más amplio sobre “Espiritualidad e inspiración franciscanas en la obra de B. Gandiaga”, que próximamente será publicado en una obra colectiva de la Universidad del País Vasco, dedicada a Pello Huizi.

La inclusión ahora de este artículo en la revista *Cantabria Franciscana*, no pretende en ningún modo introducir ninguna “causa de beatificación” de nuestro fraile poeta; seguro que tendría otros valedores mucho más válidos –y valientes– que este articulista –admirador, por cierto, del fraile y del poeta Gandiaga–.

Sin querer ser –no queriendo ser– una apología personal y literaria de nuestro personaje, el artículo trata de dar una sucinta semblanza cercana del mismo, basado en gran parte en sus textos autobiográficos. Efectivamente muchos, muchísimos de los escritos literarios de Gandiaga son verdaderamente autobiográficos, aun sin pretenderlo; y a través de ellos podemos introducirnos en el interior franciscano del fraile y del poeta, sensible sobremanera en su interior espiritual, y “sensual” en todos sus sentidos corporales, particularmente estimulados en él por su entorno natural. Abierto e identificado con el palpitar de la naturaleza, en ella encontró el modo de expresar su alegría de vivir –bizi-

poza!-, por una parte, y su sufrimiento existencial –el del espino, elorri-.

En su vida de fraile, sacerdote, educador y poeta –cantor– buscó, en un caminar de incesante inquietud y no pequeñas contradicciones, la liberación de sus complejos interiores –egin-beharrren estua, zintzo-beharraren gogorra– y la orientación de sus afanes vitales –bizi-joranak–, para hallar en los últimos años y días de su vida la profunda libertad y serenidad espiritual, frente a la misma muerte, que fueron objeto de admiración de quienes convivieron con él y de quienes le visitaron en su última enfermedad.

Los factores que determinaron o influyeron en esa evolución pudieron ser varios, y han sido señalados por diversos autores. Al bosquejar esta semblanza biográfica de Gandiaga, este articulista se ha aventurado a poner sobre la mesa la hipótesis de una especie de “conversión” de nuestro Bitoriano en su peregrinación a Tierra Santa (1978), cuando descubrió con espanto su propio rostro de perro: “Gizona zakur egin zen, / gizon izateko / gauza izan ez zelako...”. Algo de eso sugieren sus tres poesías escritas frente al espejo del hotel de Tel Aviv –ver en su obra póstuma Adio-. Pudo ser el inicio de su nuevo proceso de liberación, en su aspecto traumático. Según nos confiesa él, escribió muchísimos apuntes en sus días de peregrinación y visitas a los Lugares Santos; pero sólo nos han quedado esas tres poesías, y alguna más. Un conocimiento más directo de las impresiones, los sentimientos y pensamientos vividos en su experiencia de la Tierra de Jesús, nos hubiera dado seguramente claves para comprender el aspecto más positivo de su proceso de liberación humana y espiritual.

*** **

Bitoriano Gandiaga Artetxe (1928-2001). Bizkaiko Mendata herrian jaio zen, sei senidetan zaharrena bera. Basoko baserri bakartia zen Orbelaun, Oiz mendiarri begira. Mendata herrigunetik urrun –arro handia dago herrigunearen eta baserriaren artean-. Arratzu herritik hurbilago dago, eta elizaz Arratzukoa da, izan. Horregatik beren bizitza soziala eta elizakoa Arratzun egin ohi zuten Orbelaukoek. Bietakoa sentitzen zuen bere burua Bitorianok: mendatar eta arratzuar. Honetara idatzi zuen behin batean:

*Herriz Mendatakoa naz,
Arratzukoa elizaz;
Mendata ukatu barik,
arratzuar sentitzen naz.*

Haurtzarora familian

Umetako urteak konplikatuta samarrak izan ziren Bitorianorentzat. Urte bi zituela –eta haur bakarra orduan– Mendatara aldatu zuten gurasoek, osabaren etxera, ama gaixotu egin baitzen. Hantxe eman zituen, beraz, mundura iratzartzeko urte erabakiorrak: lauzpabost urte; eta han egin zuen, adibidez, bere lehen jaunartzea, horretarako bertako parrokoaren laguntza ona izan baitzuen. Osabaren baserrian eduki zuen ilunabarren lehen esperientzia bizi eta hunkigarria mutikoak, bere idatzietan behin baino gehiagotan kontatu izan zuena. Argiak –eta horren eguneroko agertzeak eta desagertzeak– zirrara berezia egiten zion Bitorianori, eta berak idatzitako hainbat olerki eta gorazarreren gaitzat erabili zuen.

Berriro Orbelaunera orduko, anai-arreba txikiagoak ziren jaioak; eta horiek zaintzeko ardua hartu behar izaten zuen, baserrian gertatu ohi zenez: senide nagusiagoak –mutiko nahiz neska– txikiagoak zaindu behar, gurasoak baserriko arazoetan zebiltzan bitartean. Eginkizun horixe egokitu zitzaion Bitoriano mutikoari, Arantzazura fraide joan zen arte, baserriko bestelako hainbat beharrekin batera. Eskolara joateko asti handirik ez zuen izan; neguan bakarrik. Hola dio olerkietako batean bere buruaz:

*Txikitatik jarri zuten lanean.
Orduz gero ez du egin
lan eta lan besterik.*



Orbelaun baserriko atarian Bitoriano eta bere arreba

Arratzura predikatzaera joaten ziren fraideak, Forutik. Honelako galderarik ere egin omen zioten: –Ze, fraidetara etorriko zara? Halako batean: –Ba, bai, joan egingo naiz; baserrian lokatzartean baino hobeto– esan omen zuen. D. Anjel Arratzuko parrokoa ados: –Zu joan Arantzazura... Forua nahikoa gertu dago; eta Arantzazuko fraidegaiek –“fraidekixek”– bertan egiten zituzten bi ikastaro, nobiziadura

joan aurretik. Seminario hura bisitatzeko, eta hango baratza eta ikusteko aukera izan zuen mutikotan.

12 urte bete berritan Arantzazura joan zen, 1940ko urrian. Badirudi haren bokazioa nolabaiteko ihesbidea ere izan zela, baserriko umezaintzan ez baitzen gustora bizi –sei haur utzi zituen baserrian Arantzazura joan zenean, txikiena jaio berria–; baina haren bokazioak bestelako iturririk ere eduki zuen: Fraide sermolarien eredu, beraren gurasoek hainbeste goستن zutena, “berbadun” onak zirelako, besteak beste; benetan miresten zituzten etorri oneko eta hitz dotoreko fraideak.

Bere gurasoez maiz jardun zen Bitoriano bere idatzietan; biak ziren zintzo eta leialak, baina oso ezberdinak, bestalde:

umoretsua, irekia eta patxada onekoa zuen aita; estua eta zorrotza, berriz, ama, batez ere erlijjioko eta moraleko gauzetan. Bitoriano berak aitortzen digunez, amaren izaerak markatu zuen bereziki berarena, aitarenak baino gehiago.

“Olgetan edo txantxetan ezer esaten eta egiten-edo ez dot ezagutu izan inoiz gure ama. Aita bera be ez, baina gure aita ez zan gure ama bezain serio eta begiratu. Amak ez zuen ontzat emoten aitaren berezko eta bat-baterako urtenaldi umore oneko eta sanorik.”

“Nik neuk, eta guk gehienok, amatara emon dogu: isilak, ezkutu-zaleak, lotsatiak, edo ez dakit ba zelako erreserbadu-haizeko garean be. Aita, oster, lagunarteko hutsa genduan, eta lagunartean hazi be egiten zan a gizajoa. Beti eukan harek bere inguruan nork entzun ugari”.

Arantzazura fraidegai: apaiz ikasketak


Hamaika urte ingurutan joan ohi ziren mutikoak Arantzazuko ikastaroei ekiteko; Bitoriano bere 12etan zegoen ordurako; hala ere, “preparatorioko” edo beste ikaskideen mailara eguneratzeko ikastaro berezia egin behar izan zuen, urtebetez, hango ikasketa-programa normalei heldu aurretik –mutikotako esperientzia hori ondo etorriko zitzaion, gero, apaiz eginda, berari egokitu baitzitzaion urtetan, Seminarioko ikastaro preparatorio horretako mutikoen irakaskuntza eta heziketan lan egitea–.

Bestalde, euskararen kontura jasan behar izan zuen kolpe aski latza Arantzazun: Guztiz euskarazko munduan bizi izana bera, erdara eta latina nagusi ziren giroan gertatu zen, euskaraz egitea debekatuta lagunen artean, gaztelania ikas zezaten. Dena dela, laster gainditu ahal izan zuen nonbait talka haren astindua, eta urte alaiak izan zituen Arantzazukoak, berak aitortua duenez –nahiz eta ikastaroetako bat errepikatu behar izan–. Eta hasierako hizkuntz eragozpenak eta guzti, literatur zaletasuna eta gaitasuna erakusten hasi zen hirugarren ikastarorako; erdarazko literatura, euskara ez baitzegoen urte haietan literaturatarako Arantzazun. Geroago, Foruko seminarioan, hamazazpi-hemezortzi urte zituelarik, hasi zen euskarazko olerkiak ere idazten.

Hemeretzi urte betetzear zegoen, Zarautzen fraide-abitua jantzi eta nobizio-urtea hastean. Bere lagunak baino urte batzuk zaharragoa, gehienek 16-17 urterekin egiten baitzuten garai hartan nobizio-urtea (1947). Ikaskideak baino helduagoa ageri zen Bitoriano, izakeraz eta adinez.

Nobizio-urtearen ondoren Erriberrira aldatu zen, lagunekin batera, humanitateetako ikasketak burutu eta filosofiakoak egitera: hiru urte. Hantxe ireki zen erabat Bitoriano euskal literatura eta poesiara.

Mutikotako gaztelaniazko lehen urrats haiek ahaztuak zituen; hala ere, euskal poeta handia bihurturik, beti aitortu izan zuen gaztelerazko poeta hainbatenganako maitasun eta zaletasun, eta baita horien



Bitoriano Teologia ikasketako urteetan

eragina ere bere poesian. Baina Erriberrin euskal poeta moderno handiak aurkitu zituen: Lizardi, Lauaxeta, Salvatore Mitxelena... Eta guztiz maiteminduta gertatu zen horiekin. 1950ean argitaratu zuen bere lehen olerkia Erriberriko Filosofia ikastegi-ko *Gure izarra* barne-aldizkari hasi berrian: 22 urte zituen ordurako; markatua zuen handik aurrerako bere idazle-bidea.

1951n, teologiako ikasketak egitera Arantzazura aldatuta, osorik harrapatu zuten Bitoriano fraide eta poeta hango lurraldeak, arteak eta espiritualitateak, bere poesian ikuspegi eta biziera berezi eta berrituan kantatuko zizkigunak. Handik ia 50 urtetara hilko zen Arantzazun (2001ean), den-denak Arantzazun bertan eman ondoren. Orduko teologi ikasketak oso eskolastikoak ziren: Biblia, Eliz gurasoak eta Erdi aroko Teologo handiek landutako sistema eta metodoa, zertxobait

eguneratua. Ez dirudi bereziki latz eta lehor gertatu zitzaizkionik ikasketa haiek; normaltasunez bete zituen behintzat programaren araberrakoak. Hala ere urte haietan poesi sorkuntzan oso sartua zebilen; eta eskolastikako arrazoiketa bihurriren aurrean bizi-oreka bikaina eman zion seguruenik bere barne-barnetik ateratzen zitzaion poesiaren arnasak. Urte haietan (1951-1955) joan zen osatuz argitaratu gabeko *Elorriko lorak* izeneko poesi bilduma handia; horko batzuk, ordea, *Excelsior* eta *Arantzazu* aldizkarietan argitaratu zituen urte haietan; gerora, berriz, bilduma horretako olerki asko *Elorri* libururako aukeratu zituen. Olerki saririk ere irabazi zuen (Donostian 1951ean, eta Zarautzen 1954an) –Bigarren lehiaketa hau Frantziskotar Hirugarrendarrek beren *Anaitasuna* aldizkariaren bitartez antolatua, Andre Maria Sortzez Garbiaren aldarrikapen dogmatikoaren ehungarren urtea zela eta–. Badirudi nahiko ondo lotzen jakin izan zuela bere ikasle-bizitzan poesia eta teologiako ikasketak, *Elorriko lorak* bilduma bere teologiako irakasleei eskaintzean ageri denez: “Neure Maixueri, asti-une eta biotz-aldietako kantuok”.

Teologiako ikasketak amaitu baino lehen apaiztu zuten Bitoriano, 1954ko iraileko 19an, Luis Ocaña ikaskidearekin batera: seguruenik bien adina eta heldutasuna kontutan hartuta. Apaiz-ordenazioa bere bizitzako argialdi bizenetako izan zuen Gandiagak 1954ko irail hartan; urte luzetan izandako zalantza eta ilunaldiak argiturik gertatu zitzaizkion orduantxe, ondorengo olerki honetan kantatu zuenez, bere burua zelai bazterreko elorriarekin alderatuz:

*Pagoen orbelak, noizbaitez, hegoak
eraman zituen, orduan, olgetan.
Garbi geratu zen, unetxo batean,
maldako zelaia, loraei loxinka,
eguzki umautan.*

*Zelaia pozarren. Elorri ondua,
zokondo latzeko
betiraun laburtxo gozotan.
Hainbat urtetako zalantza-orbelak,
noizbaitez, Arnasak eraman zizkidan,
azkenez, sikan.*
*Saminen hondakin, eskuei begira,
badago zurturik, Irailgo pozetan,
nire apaiz-bihotz oraintsu iritxia...
Bai gauza ederra olio-diztia
esku minduetan.*

Teologiako urteak amaituta, apaiz gazteak Arantzazutik beste komentuetara edo munduan zehar sakabanatu ohi zituzten; batzuk, ordea, unibertsitateko ikasketak egitera joaten ziren, Erromara, Alemaniara, Kantabriako Comillasera...

Bitoriano Unibertsitateko ikasketak jarraitzeko izendatu zuten hasieran; badirudi Napolira bidali nahi izan zutela, Humanitateak sakontzera. “Además de los dichos religiosos, continúan todavía en Arantzazu aguardando la salida a destinos los RR. PP. Vitoriano Gandiaga...”, dio Arantzazuko komentuko Kronikak, 1955eko ikastaroaren hasieran. Baina gertatu zen Arantzazuko Seminarioko irakasleetako bat Valladolidera bidali zutela, eta haren hutsunea betetzeko Gandiagari eutsi ziotela bertan, unibertsitatera geroago joateko beta izango zuela aginduz. Baina, “geroko gero”, ez zen sekula bete destino hura, eta Bitorianok Arantzazun eman zuen ondorengo bere bizitza osoa, Seminarioko irakasle, hura itxi zuten arte (1990).

Seminarioko irakasle ofizioz, euskal olerkari afizioz, Eliz zerbitzari misioz


Eta dena obligazioz nolabait! Behar-raren –eginbeharraren eta betebeharraren– zentzua hain baitzuen bere barruan zorrozki finkatua gure gizonak! Egiteko guztiak, berriz, seriotasunik handienaz

hartu eta zintzotasunik zorrotzenaz betetzekoak ziren harentzat.

Irakasletza ez zuen oso atsegin, baina horretarako izendatu zutenez nagusiek, ez zuen eztabaidan jarri. Ahal zuen zintzoenik bete: hogeita hamabost urtez, ekin eta eutsi, hutsik egin gabe. Eta bere buruarekiko zintzo, estu eta gogorra zelarik, pedagogia gogorreko irakaslea izan zen —hala gogoratzen dute ikasle askok, batzuek barruko mingoztasunez—. Esku astuna erabili izana salatzen dute haren ikasle batzuek; baina Rufino Iraolak, Arantzazun bere irakasle ezagutu zuenak, ez omen zuen inoiz mutikorik jotzen ikusi (*Bidegileak. Bitoriano Gandiaga*, 3. or.). Bere aldetik, damuturik aitortu zuen mutikoekiko bere gehiegizko gogortasuna bere egunkarian

(1986), berak adiskide zituen guraso gazteen pedagogia gozoari kontra jarriz edo: “Maitasun lehor bati zegozkionak eginez gero, hurrekikoak ondo kunpliturik geneuzkalakotan, luzaro bizi izan bait gara. Legea, lege lehorra, zintzo eta zurrun betez gero, ez genuen kontzientziako erantzukizun handiagorik. Baina horra non ageri zaizkigun gurasoak maitasuna azkeneraino eramanez, lehor baino gozo, legearen aurrean zurrun baino malgu eta bigun, pedagogia gizakoi bat irakatsiz”.

Apaizgintzako egun aratz hartan ordurarteko zalantzak argituta eta saminak



ezabatuta geratu zitzaizkion, aipaturiko olerkiak erakusten digunez. Baina apaizlanak gertatu zitzaizkion, gertatu, gerora bere bizitzako sufrikariorik handienetakoa; aitortzak entzutea eta predikuak egitea zuen Bitorianok eginbeharrekorik zailena. Astegunetan eskola-lanetan zebilerarik, asteburuetan, Aste santuan eta bestelako jai handitan irten behar izaten zuen inguruko herritara: aitortzak entzun, meza eman, predikatu. Estutasunez —seguruenik larregikoz—, hartzen zituen berak eginkizun horiek. Eskerrak elizan egitekoak eginda, gero bertako jendeekin lasaiago solastatzeko aukera izaten zuen!

Ardura pastoral finkoak ere izan zituen, berak laburki argitzen digunez: “Arantzazu auzoan hamabost urtetan ihardun nintzen baserritarren kapellau, urtebete Urrexolan, hiru urte Araotzen, hamairu urtetan Plaentxiako San Andres auzoan”. Elizako lanak burututa, bertako jendeekin solastatzeko aukera gogokoa zuen, beraz, Gandiagak; eta horrelako harremanen fruitu, hainbat sineskizun, kanta eta kondaira jaso zuen herritarren ahotatik. Herrietako ibilera horietan adiskideak ere ugari egin zituen; batzuk bizitza osorako adiskide min. Zaputzaldi eta guzti, fina eta leiala zen Bitoriano adiskidetasunean.

Olerkia idaztean aurkitu ohi zuen Gandiagak bere barne-lasaitasuna, ez oinazerik gabea, hala ere. Ez zuen inola ere onartzen inork esan zeieziaion zer edo zertaz idatzi behar zuen; askatasun-eremu horixe behintzat zaindu nahi izan zuen, eginbeharrez eta obligazioz beteta ikusten zuen bere bizitzan. Baina bere idazlanean ere zorrotza izaki, gogoz bilatu eta eskertzen zuen berak idatzitakoari oharrak eta zuzenketak egingo zizkion lagunik; hala ere, bere eskutik eduki nahi izaten zuen bere obra, argitaratu arte. Bere bizitzan argitaraturiko sei olerki-liburuez gain, hainbat aldizkaritan eman zituen bere olerkiak. *Elorri* bere lehen liburu liriko-esistentzialetik (1962), *Ahotsik behartu gabe* bere azken liburu eklektikoagora (1997) etengabeko bilaketan saiatu zen Bitoriano, produkzio poetikoaren alorrean gai eta estilo berriak bilatuz. *Hiru gizon bakarka* (1974) poemak bere sentiberatasun sozialik bihotzekoen eta mingarrietakoa sakontzen du bereziki: Euskararen galarean, Euskal Herri murriztuaren eta euskal hiztun “pobreen” oinaze eta garraisiaren aurrean ateratzen zaiona, alegia. Jaiotez eta joeraz nekazaritza, landa eta mendi girokoa izanik bera, mundu hiritar eta industrialari heltzen saiatu zen *Uda batez Madrilen* liburuaren (1977) zikloan, beti mundu

hori poetikoki espresatzeko euskara bera egokitu eta lantzeko ahaleginean. Gandiagaren poesiak arrakasta handia izan zuen, batez ere 1970.eko urteetan; orduko euskal kantariak eurrez baliatu zituzten haren olerkiak; zalantzari gabe euskal poetetan musikatueta eta kantatuena izan da bera: ehun bat poema ditu kantuz grabatuak; eta beste hainbeste musikatuak, eta horietako asko elizetan eta otoitzaldietan kantatzen ditugunak.

Bitorianoaren libururik hunkigarrien eta zirraragarriena, berriz, *Denbora galdu alde* da (1985), bere bizitzako krisialdi fisiko eta psikologiko larrian gertatu zenean idatzitakoa. Bere barrua biluzten du bertan Gandiagak, eta jendearen aurrean agerian jartzen. Osasun psikologikorako terapia egokia izan zuen agian liburua, baina baita bere prozesu espiritualerako ere, bere barne-askatasunaren bila.


Zintzotasunaren kateetatik barne-askatasunerako bidean

1978an Lurralde Santura joan zen erromes Bitoriano, beste hainbat fraiderekin batera taldean. Berak iradokitzen digu han bizi izan zuen esperientzia: “Lur Santuetan (...) leher egin arte ibiltzen nintzen dena ikusi ta goza beharrean beti inpresioz beteta. Edotariko apunteak hartzen nituen beti ere. Gau batean Hotelean neure begioz ohartu nintzen idaz mahaiko ispiluan. Aztoratuta gelditu nintzen zergatik edo nondik gogortasun hau? Juxtu esperantzaren lurraldeetan nenbilen nire fedearen lurraldeetan. Urrengo egunetan obsesio bat biurtu zitzaizkidan neure begiok”.

Honetara ikusi zituen, ikusi ere, bere begiak eta bere burua ispiluaren aurrean:

*Gizona zakur egin zen,
gizon izateko
gauza izan ez zelako.*

*Asko nekatu zen
gauza asko pentsatzen
eta egundo
ez zuen pentsatu
gizaki zenik.
Asko saiatu zen
legeak betetzen,
legeak betearazten,
legearen morroi,
legelarien esaneko,
zakurrik zintzoena
bezain esaneko.
Egundo idortu
ez zitzaion bihotzaren
ihaultzaile bizitu zen
kateei ez baina, bihotzari
ausiki ta ausikiz,
egundaino.*



Tel Aviv-eko Tal hotelean izan zuen esperientzia hori, hitz autokritiko hain gogorrez poesian adierazia, erabakior gertatu zitzaion Bitorianori aurrera begira. San Paulo zalditik behera erori omen zenekoren antzekoa agian.

Oso jabetuta zegoen bera bere izaera estuaz, neurri batez bere amarengandik zetorkionaz: “Gure amaren bai kanpoko bai barruko garbitasunarekiko zaletasuna, garbikeriaraino ere iristen zen eta nahiko

eskrupulo sufritu zuen gaxoak, eta guri ere zerbait sufritu arazi zigun gaitz hori”. Bere zintzo izan beharraz sarritan mintzatu zaigu Gandiaga. Baina beti legeko eta zintzo izan behararen behar hori larregiko gogortasun bihurtzen zitzaion maiz, bere buruarekiko eta ingurukoenganako.

Lurralde Santuko esperientzia, gaur galduak diren apunte ugaritan jaso, oso aberatsa izan zuen seguruenik; eta bertan aurkitu zuen Jainkoaren Aita-aurpegia, goiko olerkian ikusi zuen bere zakur-aurpegia transfiguratzen lagunduko ziona. Handik urte gutxitara idatzitakoa du testu hau: “Alferrik sarri Jainko estu eta kontu-hartzaile eta gu noiz okerren batetan jaustearen zain dagoen baten berri entzun, gauzen egile denez eta hain gauza ederrak egin dituen, niretzat ona eta Aita izan da Jaungoikoa”.

Kontua da, bere bizitzako prozesu berria abiatu zuela ordutik aurrera: bere buruari erruki izaten ikasi zuen, bizitza eta lana lasaitasun handiagoz hartzen, eta, ondorioz, mutiko ikasleekin eta inguruko anaia fraideekin ere bigunagoa izaten. Eta maitasunaren samurra hobeto ulertzen, honako olerkitxoan adierazi zuenez:

*Maitasuna murrizta da
samurtasunik ez badu;
lakarra da maitasuna
legea besterik ez badu;
gozoa ez bada,
ez da egiazkoa
maitasuna deritzaion
eskeletoa.*

Eta “denbora galtzen”... ikasi zuen, bizitza osoan denbora galtzearen kezka estuan bizi izandako hark; eta San Frantzisko Asiskoarengandik ttirritaren –txitxarraren– erdua miresten eta kantatzen ikasi zuen: aspertu gabe kanta eta kanta, besterik egin gabe, ari den ttirritarena, alegia.

*Ttirritta naiz ni
uztaileko iratzeak
bezalako berdea.
Matxinsalto antza badut ere
ez naiz matxinsalto.
Kantatzea zait gustuko
kantuan berriz hasi eta hasi
aritzea
amaigabeko hasi eta hasi
amaibakoan.
Txindurriek ez naute
bistan ikusi nahi
besterik gabe.*

San Frantzisko Asiskoaren jarraitzaile zoriontsu

Sentibera zen oso Bitoriano. Bere buruak sufriarazten zion aurrenik, eta baita bere inguruak ere. Euskal Herriko eta munduko edozein bazterretako zufrimenduak sufriarazten zion; euskararen egoerak eta euskaldunaren penak penatzen zuen; bere eguneroko beharrak sufriarazten zion barrutik: irakasle- eta apaiz-lanak; baita idazte-lanak ere maiz; fraideen elkarteko eguneroko bizitzak ere sufritzeko elementu askotxo ematen zizkion. Baina tristatzeko arrazoi ugari eta guzti, pozteko eta alaitzeko bide gehiago eman zion bizitzak Bitorianori eta gaitasun apartekoa zuen pozaldia intentsitatez bizitzeko; eta horiek bilatu ohi zituen, eta bizi-poza aldarrikatu ohi zuen, bizitzako penak gainditze aldera.

*Maite dut bizitza,
maite dut,
eta bizipoza opa diot
bizitzari.*

*Bizipoza opa diot
bizi nazala dasaidan
kontzientziari.*

Sufrimendu eta guzti, pozik bizi izan zuen bere bizitzako funtsezko aukera nagusia: fraide frantziskotar izatea. “Aita San Frantzisko bizitza bidean aurkitu izanaren poza ere agertu nahi dut. Naturarenganako maitasunean bateratsu gatoz, Jainko Aitarekiko ikuspegian, Jesu Kristorekikoan, Espiritu Santuarekikoan, Andre Maria eta santuekikoan gidari eta irakasle maitagarri dut”, aitortu zuen Bitorianok bere idatzietako batean; eta bere fraide profesioiko 50. urteurrena ospatu eta bere profesioa berritzekoan, honako aitorea egin zuen: “Sekulako zoriontzat daukat Jesusenganako bidean Aita San Frantziskoren eredia izatea, imitatzaile exkaxa banatzaio ere”.

*Pozik bizi nazala
diñotsudanean,
ez diñotsut samiñik
ez daukatanikan.*

*Pozik bizi nazala
diñotsudanean,
itxaro daukadala,
diñotsut, ariman.*

Izadiaren begirunea eta pobreen aldeko aukera

Haurtzaroan eta mutikotan baserrian eta familian bizi izandako esperientziaz zekarren Bitorianok izadi eta lurrarekiko begirune eta hurbiltasun pozgarria, bategatik, eta gizarteko behe-mailakoengako identifikazio eta atxikimendua, bestetik –gurasoak maizter pobreak zituen, ez baserriaren jabeak–. Arantzazun eta fraide frantziskotar bizi izanik, aukera berezia izan zuen bere izaerako joera horiek landu eta sakontzeko.

Eguneroko argiaren sortzeak eta itzaltzeak zirrara egiten zion Bitorianori; artean haurra, Mendatako osabaren etxean bizi zelarik, aulki batera igota, eguzkia nola ezkututzen zen leihotik begira, negar malkoak ateratzen omen zitzaizkion.

Bere olerki askotan kantatu zuen argiaren ederra, barne-dardaraz. “Mendirako sena” zuen eta mendiko ibilaldi luzez bereziki zekien gozaten; eta Arantzazuko gailur, bide eta txoko guztiak ikusiak eta mihatuak zituen –hainbat aztarna arkeologiko ere aurkitua zuena mendi haietan–. Zentzumen guztiak irekita ibili



Bitoriano Gandiaga eta Mertxe Urteaga, arkeologoa, Urbian indusketa arkeologikoetan.

ohi zen bera, haizearen musika eta bizidun guztien soinuak entzuteko, lurraren usainak aditzeko, harkaitzen, belarren eta zuhaitzen kolore ugariak ikusteko. Mendiko bideak eta zidorrak benetako zinta grabatuak ziren harentzat, beraietatik igarotako jendeen penak eta pozak, hitzak eta kankak gordetzen zituztenak. Min ematen zioten izadiari egindako urradurek, eta maitasun hutsez garbitzen zituen bazterrak, konpontzen iturri eta bideak, landatzen eta zaintzen zuhaitzak. 4.400 bat zuhaitz landatu omen zituen santutegiaren inguruko malkarretan, Arantzazu eder eta abegikorragoa egin nahian bertaratzen ziren jendeentzat.

Gizarteko baztertu, pobre, txiki eta behekoenganako hurbiltasuna eta kide-tasuna ere barru-barrukoak zituen Gandiagak. Bizimodu neketsu eta pobreak nekazari euskaldunen ikuspegitik bizi zuen bereziki bere sentiberatasun soziala. Hona nola arrazoitzen eta adierazten duen pobreen aldeko aukera hori, Arantzazuren eta bertako fraideen misio berezizat hartuz gainera: “Ni neurez naiz “behekoen” aldekoa: gu baserritar ginen eta aitak gure

posizio sozialaz zera esaten zuen: gu “bajuok”. Gu “bajuok” bajuago geratu ginen hizkuntza berari egin zien mezprezu eta galerazpen berarengatik ere. Eta abar. Baina gu “bajuon” eta galtzaileon betiko lagunak –zalantzaldi bat edo besteren bekatuak gorabehera– gureganantz itzuli ziren eta gure alde jarri eta aritu. Arantzazun ezin zitekeen bestelako fraide izan: jende zapaldua, apala, bajua, mehea zetorren batez ere hona etorri, esperantza piska baten bila, arnasa apur baten bila, argi, konprentzio eta laguntza izpi baten bila. Arantzazuko fraidea bokazioz da txikar –minor– eta xalo, eta maila horretan jardun du bai hemen bai euskal herriz herri, bai eta erbestean. Gure kristau konpromezua jende xehe, nolabait baztertu edo gutxietsi eta xumearen aldeko lana izan da bereziki, bai haren kristau bizitzari lagunduz eta baita ere haren sozial eta herri-bizitzaren alde jokatu”.

Arantzazuren poeta kantaria

Mutikotan bost urte eta gero 50 urte Arantzazun emandako gizonak barru-barrutik maite zuen Arantzazu, beraren

osoan: lurralde eta mendietan, elorri eta harkaitzetan, basilika eta artean, bertako espiritualitatean eta bertara hurbiltzen zen jendeagan... Harriduraz eta zoramenez aurkitu zuen, garai hartan mantuz estalita eta zilarrez inguratuta zegoen Andre Mariaren harrizko irudi irribarretsua:

*Arrizkoa zara.
Iribarrezko arri
triste t'otzekoa*

*Elorrian zagoz.
Iribarrezko triste
irribarrezkoa.*

Osorik Arantzazuren inguruan idatzitako bere *Elorri* poema ederraz gain, beste hainbat olerkitan kantatu zuen Arantzazu, ikuspegi askotatik, bertako Andre Mariaren irudiaz gain: Argia eta euria, lurra eta ura, mendiak eta bideak, erromesak eta mendizaleak, fraideak eta fraidegaiak. "Arantzazu dut kantagai" hasi zuen bere olerkietako bat:

*Arantzazu dut kantagai
bera dut bizitza
eta Arantzazu dut kantagai
hementxe bizi naiz fraide.*

*Hona deitu ninduzun
hemengotu nendin
hemengotu nintzaizun
hemengo egin.*

*Bat nauzu harkaitzekin,
bat elorriekin,
bat bera Arantzazu
den guztiarekin.*

*Jauna da Arantzazun
guztizko guztia.*



Oteitza eskultorearekin izan zuen harreman luzearen eta adiskidetasun estuaren ondorioz, Gandiaga bera dugu Arantzazuko artearen eta bereziki basilikaren aurrealdeko Oteitzaren obraren interpretarik hurbilenetarikoa. Hona nola ikusi zituen frisoko Apostoluak, eta goialdean Ama Doloretakoa:

*Esperantza sortu zuena
hilik ikusi zuten
zerraldo,*

*Haren Ama
galdera larri egin zen,
erantzun eske,
zerurantz,*

*Haren jarraitzaileek
asaldatu egin ziren
ezustekoak jota,*

*Fedea hemen hazten da,
irarri zuen Oteitzak
Arantzazuko frisoan
trintxaz eta mailuz.*

Senide heriotzaren aurrean bake- turik

1990ean utzi zuen Gandiagak bere seminarioko irakasle-lana; eta Arantzazuko komentuan geratu zen bizitzen, pozik, handik aurrera bere eginkizun nagusia idaztea izango zuela esan baitzioten nagusiek. Hala ere, bere barruko kezka zeraman beti, anaiartean agertzen ziren bestelako eginkizunei, etxe barrukoei eta kanpokoei ere heldu beharra zeukalokan, eta idazteak bakarrik bere bizitzako misioa betetzen ez ote zuen kezka. Hona hemen fraide poetaten barne-elkarrizketa modukoan, Gandiagak Bitorianori esaten diona: “Seminarioko zeregina oraindik amaitu orduko hasi zinen zeure etorkizuna asmatzen eta prestatzen. Tirrittaren ant-

zeratsuko izan nahi zenuen aurrerantzean: kantuari emana. Bereziki kantuari emana. Beldur zinen, eta ez alferrik, gauza izango ote zinen beste ezer baino lehen ttirritta izateko, gainontzeko ezertan baino lehen, kantuan aritzeko. Eta bistan dago gaurdaino behintzat ez zarela gauza izan ez jendeari ez paper zuriari esateko: nik idatzi egin nahi dut, nire eginkizun serioenetako bat idaztea dela deritzodalako”.

Bere betiko barne-borroka horretan, oreka bilatzen saiatu zen Bitoriano bere bizitzako azken hamar urteetan. 1993an agertu zitzaion maskuriko gaitz larria, handik zazpi urtera heriotzara eramango zuena. Poesia intimo erlijiozkoa idatzi zuen batez ere Gandiagak azken urte horietan: Eliz kantak, Liturgiako gorazarreak, otoitz pertsonalak... Hurbil sentitzen zuen heriotzari aurpegia emanez beti ere. Buruz zekien San Frantziskoren *Sorkarien kantika*, eta ondo barnetatua zeukan senide heriotzaren estrofa ere.


*Heriotzarekin,
biok besoz beso,
heriotzarekin
nabil egunero,
elkarrekin etsi
genuenez gero...*

*Nahiz ta beti dudan
gertu erabili,
lehenago ez nintzen
ohartzen ere ni,
baina honez gero
ezingo dut ahantzi.*

Hainbeste aldiz bizitzaren ederra kantatu, eta bizia hainbeste maite zuen Bitorianok, eutsi zion, eutsi, bizitzari, ahal izan zuen arte; baina etsi egin behar izan zuenean, negar malko eta guzti, baina larritasunik eta protestarik gabe onartu zuen heriotzaren bisita.

Miresgarriak izan ziren Gandiagak bere bizitzako azken aldian, eta bereziki azken egunetan, erakutsi zituen bakea eta lasaitasuna, bertako anaia fraideak eta kanpoko lagunak harrিতuta utzi zituztenak, gure fraide poetaren heldutasun espiritu-alaren ezaugarri.

2001eko otsailaren 21ean hil zen Bitoriano Gandiaga, Arantzazun. Hurrengo egunean jendetza handia bildu zen bertan egin zuten hiletara. Berak konposaturiko bizitzaren sinesmen-kanta hau abestu zuten mezakoan:



*Sinesten dut bizitza,
pozten nau bizitzak
poz betirainokoz:
piztu da Jesu kristo
sekuletako poz.*

*Sinesten dut bizitza,
hari zor natzaio,
hari eskerrak naiz;
arretaz dut zainduko,
ospatuko dut maiz.*

*Sinesten dut bizitza
betirako dohain
alai ta galanta;
badut zertan gozatu,
bai-eta zer kanta.*

Paulo Agirrebaltzategi